

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ELCIEGOKO UDALA

Herritarrek parte hartzeko programa Elciegoko hiri antolamendurako plan orokorraren (HAPO) egiturazko aldaketan, 10 poligonoko 504, 264, 265, 267 eta 270 lurzatiei dagokienez

Arabako Errioxako Ardoaren Zentro Esperimentala Anti6n upategi zaharren eraikinean ezarri ahal izateko, hari datxekion aparkaleku bat gaitzeko eta kokapen horren eta Elciegoko hirigunearen artean lotura funtzional bat sortzeko, alkatearen uztailaren 30eko 207/2026 Dekretuaren bidez, Elciegoko hiri antolamendurako plan orokorraren (HAPO) aldaketa izapidetzen hasia onetsi da aipatutako lurzatietan, Diana Jurado Fernandez, Marta Cabezon Perez eta Nuo Mardones Fernandez de Valderrama arkitektoek idatzitako proposamenaren arabera, eta honako hau onetsi da:

HERRITARREK PARTE HARTZEKO PROGRAMA

1. Herritarrek parte hartzeko programa onestea. Programa hori ALHAOn, udalaren web orrian eta udalaren iragarki taula fisiko eta elektronikoan argitaratuko da.
2. Herritar guztiei jakinaraztea, web orriaren, iragarki taularen, egoitza elektronikoaren eta udal app-aren bidez, informazio ohar bat, HAPOaren aldaketa hori idazteko prozeduraren hasierari buruzkoa, herritarrei hasierako lehen azalpen saiorako deia eginez.
3. Herritar guztiei irekitako azalpen saioa, idazketa taldeak azaldua. Bertan, aldaketaren irismena eta edukia azalduko dira, bai eta izan ditzakeen alternatibak eta herritarrek parte hartzeko programa ere.
4. Aldez aurreko kontsulta publikoa: Hamabost eguneko epea ematea herritarrek parte har dezaten, hasierako saioko iradokizunak edo iritzia aurkezteko, bai ohiko bitartekoen bidez, bai teknologia berrien bidez. Kontsulta publikoaren epea lehenengo azalpen saioa egin ondorengo egunean hasiko da.
5. Idazketa taldearen txostena, hasierako onespenerako HAPOaren aldaketaren memorian sartzeko jasotako iradokizun eta iritziei buruzkoa.
6. HAPOaren aldaketari hasierako onespena ematea. Aldaketa jendaurrean jarriko da ingurumen azterketa estrategikoarekin batera, iragarkia ALHAOn, probintzian gehien saltzen den egunkarian edo egunkarietan eta udal iragarki taulan argitaratuta, bai fisikoa, bai elektronikoa.
7. Herritarrei irekitako azalpen saioa, idazketa taldeak udal bulegoetan egingo du. Saio horretan honakoak azalduko dira: aldaketaren irismena eta edukia, dokumentua nola kontsulta daitekeen, alegazioak nola egin eta haiek aurkezteko tokiak eta epeak. Jendaurrean egoteko epearen erdi aldera egingo da bilkura hori.
8. Idazketa taldeak alegazio txostena egingo du, udalarekin batera azter dezan, haiek ebatzi eta aldaketa izapidetzen jarraitzeko.
9. Prozesuan HAPOaren aldaketa eta parte hartze prozesuaren ondorioak dokumentuan sartzea.

Eltziego, 2026ko uztailaren 30a

Alkatea

JUAN CARLOS URIBE RUEDA